


# BERRIGARA

29 zenbakia

Jardun elkartea, Bergara

1991, uztailak 12




**Victoriano  
Gallastegi:  
"Bergarar guztion  
alkatea izan  
nahi dut"**



**Martzial Agirre:  
ezezagun  
ospetsua**



**San Martzial Txiki,  
San fermin eta San  
Kristobal**



**Boxeoa:  
Fernando Rubio  
"Madurako Txekorra"**



**ROVER**


**SAN ANDRES AUTOMOBILAK**

**ROVER 200 SERIEA, 16 BALBULA ETA**


**1.785.000 PZTATIK AURRERA**

**Araba Etorbidea 13, 20.500 ARRASATE**

**Tfnoa: 79 95 22 / 79 53 98**







Barrenkale, 3 • BERGARA • telf.: 943-765919



Barrenkale 16 Tfnoa: 76 20 66

# GALDE DEBALDE



## Mari Paz Alberdi

Aurreko GALDE DEBALDEKO erantzun zuzena hau zen: Izena: MAGDALENA DE ARAOZ eta AZEDO LOYOLA ETXEA Harrurlagan.

ARGAZKI dendako SARIA Mari Paz Alberdik irabazi du. Argazki honetan ikusten dugu gure saritua ARGAZKI DENDAN saria jasotzen.

**ZORIONAK irabazleari!**

**Eta besteok animatu, eta erantzuna eman aste honetako galderari!**



## HERRAN

## ETXEA

Elektragailuak  
T.B. - Bideoak - HI FI  
Sukaldeko Altzariak

Matxiategi 3 Tfnoa: 76 12 22 BERGARA



## JANTZIDENDA

Barrenkale 24, Tfnoa: 76 10 57



# BERRIGARA

**Argitaratzaileak:**

Jardun Elkarte

Errotalde Jauregia, 20.570 Bergara  
Tfnoa: 760397

**Laguntzaileak:** Bergarako Udala

**Zuzendaria:**

Miguel Angel Elkoroberezar

**Erredakzioa:**

Eneko Azkarate. Eduardo Mendibil

**Maketazioa:**

Edure Arenaza

**Publizitatea eta harpidetzak:**

Ignazio Irigoien. Edure Arenaza  
Tfnoa: 760397

**Erredakzio-kontseilua:**

Jose Angel Mikeo, Estepan Plazaola eta Juan Martin Elepuru

**Kolaboratzaileak:**

J. Oregi, A. Urzelai, Maripi Laskurain, Olaia Inza, Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, Mikel Lizarralde, Monika Belastegi, Mikel Elkoroberezar, Josune Iñarra eta Xabier Aranburu, Aitziber Aretxaga eta Ainhoa Bikuña

**Argazki laborategia:**

A. Gallastegi, B. Cantero, M. Leturia, K. Retolaza, J.A. Eguren, J.I. Millan, J. Aguayo, J. Tabares, Txomin Retolaza, Kifu eta Pol-Pol Mendizale Taldea.

**Komikia eta marrazkiak** Josu Okina eta Antonio Arrillaga

**Inprimategia:**

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

**Banaketak:** Txantxangorri Taldea

**Copyright:**

BERRIGARA

Tirada: 2.500 ale

Loge gordailua: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.



## 12 OSTIRALA

- **Zinea:** "La hoguera de las vanidades", 10.30etan.
- **Kontzertuak:**
- Aretxabaletan, Gaztetxean 10.30etan: *Zorrostiaga eta Metralla*.
- Antzuolan, Gaztetxean 11etan: *Josi eta los Javis*.
- Azkoitia, Gaztetxean 20 etan *Zorrotz, Ekin, Futs* eta *Cora Cox*.
- **San Kristobal jaiak:**
- 11etan dantzaldia *Luhantz* taldearekin.
- **Goardiako farmazia:** Estella (Matxiategin)

## 13 LARUNBATA

- **Zinea:** "La hoguera de las vanidades" 10.30etan,

- **San Kristobal jaiak:**
- 11etan dantzaldia *Luhantz* taldearekin
- **Goardiako farmazia:** Mozos (San Pedron)

## 14 IGANDEA

- **Zinea:** "La hoguera de las vanidades", 7.30etan eta 10.30etan.
- **Ogia:** Konde Panaderokua (Burdinaten)
- **Kontzertuak:**
- Sorluzen Gaztetxean 9 etan *E.H. Sukarra* eta *Slips Revenge*.
- Aretxabaletan 8etan *Cook Cox*.
- **San Kristobal jaiak:**
- 12 etan Meza Nagusia ondoren kotxeen bedeinkapena.
- 12.30 Lunch-a jubilatuentzat.
- 1etan Gibeti harrijasotzailearekin Euskal Jaia. Ondoren Elorza Anaiak trikitrilariak
- **Goardiako farmazia:** Mozos (San Pedro)

## 15 ASTELEHENA

- **Zinea:** "La hoguera de las vanidades" 7.15 etan.
- **Goardiako farmazia:** Puy (Barrenkalen)

## 16 ASTEARTEA

- **Goardiako farmazia:** Egunez: Estella (Matxiategin)

gin)  
Gauetz: Azcoaga (Arrasaten)

## 17 ASTEAZKENA

- **Goardiako farmazia:** Egunez: Mozos (San Pedron)  
Gauetz: Español (Arrasaten)

## 11 OSTEAGUNA

- **Santa Marinan Jaiak:** Haurrentzako kukainak
- **Zinea Ilargitan:** Usondon gaueko 11etan "Francesco" filma
- **Goardiako farmazia:** Egunez: Estella (Matxiategin)  
Gauetz: Arrasaten

## Aukeran...

San Kristobal jaiak

Zinea ilargitan Francesco

## IRUBIDE

### Taberna

Bazkariak, gosariak, afariak, etab.

Urteaga 9 Tfnoa: 76 25 67

## AGIRREBEÑA

Oinetakoak  
Erropa denda  
Lenzeria

Urteaga 5, Tfnoa: 76 18 29 BERGARA

## Beheko

### Taberna

MENESTRA ETA KONEJOA  
DIRA GURE BEREZITASUNAK

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74



# TOKI-EDER

**Taberna**  
**Pintxoak eta**  
**eguneko bazkariak**

Artzamendi Tfnoa: 7651 84 BERGARA

**iRUDI**  
**Erlojutegia**  
**Bitxitegia**

San Pedro 11  
 Tfnoa: 76 51 65



**TOSHARE**

**ILEAPAINDEGI MISTOA**  
**ESTILISTA.**

Artekale 29, Behea  
 Tfnoa: 76 29 70  
 BERGARA

## Aurrera egin beharrean atzera



Aspalditik neukan igarilekuei buruz gutun bat idazteko gogoia, eta azkenean hitz batzuk idaztera ausartu naiz.

Urtero bezala aurten ere pizinetako bazkide egin naiz. Normalean neguan ez naiz bertara joaten baina udara heltzen denean, eguzkia hartzera joatea gustatzen zait. Aurten 8.500 pezeta ordaindu behar izan dut igarilekuetara joateko karneta etaratzekoan, eta ez zait batere ondo iruditzen diru kopuru hori pagatu eta gero kanpoko pizinak uztailearen 7ra arte itxita egotea. Obrak egiten jardun dutela esaten dute, baina ez al dute negu osoa eduki obrak egiteko?

Eta beste gauza bat, pizinetara sartzeko ilaran ordu erdi itxoin beharra ez zait sekula gertatu; ez dago eskubiderik. Informatikak dirudienez, kasu honetan ez du ezer onik egin. Aurrera joan beharrean atzera goaz. Nahiago nuke lehenagoko sistemara bueltatzea, orduan behintzat ez geneukan kolan itxoin beharrik.

M. Luisa L.



• **ERITETXEAK**

Osasun etxea ..... 76 10 82  
 Larrialdiak ..... 76 12 94  
 Arrasateko ospitalea ..... 79 53 00

• **GURUTZE GORRIA**

Bergara ..... 76 55 76

• **DYA**

Antzuola ..... 76 62 91

• **ANBULANTZIAK**

Bergaran ..... 76 13 59  
 Gipuzkoako anbulan. .... 45 87 44

• **SUHILTZAILEAK**

Zubillagan ..... 78 28 00

• **POLIZIA**

Udaltzaingoa ..... 76 14 69  
 Ertzaintza ..... 76 53 40

• **GARRAIOAK**

P.E.S.A. .... 76 16 46  
 Taxiak ..... 76 19 50

• **HIRUGARREN ADINA**


Mizpirualde ..... 76 13 68  
 Aitonak ..... 76 21 40

• **BESTELAKO ZERBITZUAK**

Udaletxea ..... 76 39 42  
 Epaitegia ..... 76 14 72  
 Kiroldegia ..... 76 56 41  
 Igerilekuak ..... 76 20 51  
 Kultur Etxea ..... 76 44 46  
 IMI ..... 76 55 49

**Tiiira ba!**

**Josu Okina**








### Goikorik barik eguzkitan

Igandean zabaldu zirenetik jende asko hurbildu da aste honetan zehar kanpoko pizinetara eguzkia hartu edota bainu bat hartzeko asmoz. Oraindik ere zenbait obra burutzen ari diren arren, igarilekuek benetan itxura polita dute izandako berrikuntzen ondorioz. Orain, aspaldiko polemika bat argitzea espero du Gregorio Iruretagoiena pizinetako arduradunak, *top-les*a edo eguzkia goikorik barik hartzearena hain zuzen; pizinak zabaldu bezain laster inkesta bat egiteko asmoa azaldu zuen baina dagoeneko ikusi ditugu lehen *top-les*ak inkesta hori egin aurretik.



### San Kristobalگو jaiak

Aste honetan zehar San Kristobal auzoak bere jaiak ospatzen ditu. Asteartean ohizko pinua jarri zen ermitaren ondoan eta auzoko gazteek txokolatada egin zuten. Asteazkenean, San Kristobal egunean, jende dexente izan zen eguadiako Meza Nagusian, ondoren Don Jose Maria apaizak bertara hurbildu ziren kotxeak bedeinkatu zituelarik. Gauean Tapia eta Leturia trikitilarien eskutik dantzaldia izan zen. Gaur eta bihar larunbata Luhartz taldea izango dugu San Kristobalen eta igandean, asteartean kotxea bedeinkatzerik izan ez zutenek aukera berri bat izango dute eguadiako Meza Nagusiaren ondoren. Jubilatuentzako *luncha* ere izango da eta arratsaldeko ordu batean Gibitegi harrijasotzailea arituko da, Elorza Anaiak trikitilariet giroa alaituko dutelarik.



### Istripu bitxia

Dirudienez, publizitateak gudan duen eraginak ez du mugarik. Gauza da Lankide Aurrezkiak Argiñanoren bideoak direla eta kaleratutako kanpainagatik edo norbaitek sukalderraino sartu nahi izan zuela joan den asteartean; eguerdian, gazte bergarar bat kotxe eta guzti Lankide Aurrezkiak Ibargarain duen behin behineko lokalean sartu zen, barruan zeuden bezeroak harri eta zur utziz. Zorionez, ez zen zauriturik izan baina batek baino gehiagok pentsatuko zuen hura atrakoren bat edo zela...

#### ☐ Salaketa

Ollagorria Arrantza eta Ehiza Elkarteak joan den asteartean San Juan errekan izandako hondamen ekologikoa salatu zuen. Bertara jaurtitutako sustantzia toxikoez 300 m.ko tartean amorrain eta ezkailu pila bat akabatu dute, errekarri ere izugarritzko kaltea eginez.

#### ☐ Komunak

Gizarte Ongizate eta Osasun Batzordea Bideberri eta Frontoiairen artean komun berriak egiteko jeshioak egiten ari da. Hasieran komun horiek elbarrituentzat bakarrik egitea pentsatu bazen, zenbait kontsulten ondoren bestentzakoak ere izatea erabaki da.

**HALTZARI**  
**Fagor altzarien banatzailea.**  
**Sukalderako altzariak**  
 BOLU 24 Tfnoa: 76 30 57 BERGARA

**LASA JATETXEA**  
  
**Bkurutzeta 36, Tfnoa: 76 10 55 - 76 20 29 BERGARA**



**☐ Toxikomanoak**

Aurreko Gobernu Batzordeak hartu zuen azken akordioetako bat toxikomanoendako laguntzak ditugu. Udalak tratamenduan diren eta ingresurik ez duten gaixoen gastuen zati bat bere gain hartuko du.

**☐ Kriteriuma**

Bihar larunbata, Elgetako Txirrindulari Elkarteak antolatuturik, Euskadiko VII. Mendi Txapelketa jokatu da. Lehen eta bigarren mailako afizionatuek eta maila berezikoek ere 122 Km.-tako ibilbidea bete beharko dute.



**Zinea ilargitan**

Joan den ostegunean izan genuen Kultura Batzordeak uztailerako antolatu dituen zine emanaldien *estreinaldia* Usondon. Egia esan, emanaldi nahiko istilutsua izan genuen mozketa ugari izan baitzen *House Party* filma osoan zehar eta pantaila ere bertan behera jausi zen haizeak edota inguruan ziren mutil batzuk eraginda. Kontua da filma amaitu zenerako ordu biak jota zirela eta, hasieran nahiko jende bazegoen, amaierarako oso jende gutxi geratu zen. Inguruan bizi direnen kexuak ere izan dira bolumen altuagatik eta, beraz, gauzak zertxobait hobetu beharko dira.



**San Ferminak Bergaran**

Udalekuetako haurrek eta begiraleek San Fermin eguna ospatu zuten joan zen astelehenean gure herriko kaleetan. Hamarrak aldera, guztiak zuriz jantzita eta lepoan ohizko painuelu gorria zeramatela, San Martin de Agirre Eskolatik irten eta Plazara abiatu ziren. Han, txikiek osatutako txarangak kalejirari hasiera eman zion eta jarraian falta ezin zen entzerrua egin zuten Usondoko Parkean. Haurrek trebetasun eta ausardi handia erakutsi zuten *zezenen* aurrean, ez zen zauritu larririk izan eta, entzerrua amaitzean, korredore ausartienek eta besteek ere goxokiak izan zituzten sari gisa. Amaieran, eta goiz guztian zehar egin zuen beroa uxatze aldera mangera erabili zuten elkarri ura botatzeko. Datorren urtean ere, **Gora San Fermin!**

**☐ Gaztetxea**

Bertan egin diren berrikuntzen ondoren, Gaztetxeak berriz ere ekin dio kontzertuak antolatzeari. Orain bi aste *Soziedad Alkoholikakoak* izan bagenituen, atzo osteguna *Allnighters* taldeak jo zuen.

**☐ Tourmaletera**

Bergaratik ere autobus bat antolatu da datorren ostegunean Tourreko Pirineotako etapa ikustera joateko. Irteera ostegunean bertan gaueko 12 t'erdietan Frontoitik izango litzateke eta izena 761134 telefonon eman beharko duzue.

**MAKAILO**  
Makailo **ETXEA**  
kazuelak  
gertatzen ditugu  
**Ibargarai 15**

**ERREKI**  
**Erretegia**  
Berezitasunak :  
**Bixigua eta txuletak.**  
Fraiskozuri Enparantza  
Tfnoa: 76 38 51

**AE ELKORO ANTENAK**

**. TB Satelite bidez**

**. Telebanaketa**

**ARRASATE**

**Tfnoa: 79 18 86**





## Udaltzain berriak

Nahiz eta uztailaren 1etik lanean egon, esan daiteke estreinu legala astearte honetan egin zutela gure herriko udaltzain berriek; Roman Zeziaga 27 urteko bergararra eta Ion Lopez Santamaria 24 urteko arrasatearrak asteartera arte itxaron behar izan zuten uniforme ofiziala jantzeko. Asteartean, bere lankideen bromen artean, patrullak egiten hasi ziren dotore jantzita. Biak langabezian zeuden aukera hau aurkeztu zitzaizen arte. Orain, bi fitzaketa berri hauekin, udaltzainen ekipoa 15 pertsonaz osaturik geratzen da, jefea, bi kabu eta 12 udaltzain. Ez da ez ekipo makala, beraz adi egon zaitezketen ze bi udaltzain berriak ere multak jartzeko prest azaldu zitzaizkigun, dagoeneko multetarako kuadernotxoak ere eskuratu diete eta.

### 44ko Kintoak

Hilaren 20an, datorren larunbatean, 1944 urteko kintoek anaiarteko eguna ospatuko dute. Trinidadeko kapillan izango den mezaren ondoren, bazkaria Antxoni Jatetxean egingo dute. Interesatuak 765622 telefonora deitu dezakezue.

### Taun-Taun

Lekeition ospatzen ari den Nazioarteko III. Kale Antzerki Jaialdiaren barruan, aste guzti honetan zehar, Bergarako taldeak txotxongilo, erraldoiak eta panpinak burutzeko teknikei buruzko ikastaro bat ematen izan dugu.

### UNED

UNEDeko Hizkuntza Eskolan matrikulatzeko epea irailaren 5etik 25era bitartean izango da zabalik. Ingeles eta frantseseko maila guztiak emango dira eta argibide gehiago nahi izanez gero 761342 telefonora jo dezakezue.

### Zozketa

Bergara Kirol Elkarteak zozketatutako Kanariar Irletarako bidaia 10.013 zenbakiak irabazi du. Zenbaki honen jabeak bi pertsonarentzako bidaia edo 100.000 pezeta jasotzeko aukera izango du.




## Samartzial txiki

Antza denez, Musika Eskolakoak ez ziren konforme geratu orain bi aste ospatutako Samartzial egunarekin eta joan zen igandean, berriz ere, San Martzialera joan zitzaizkigun aurtengo ikasturtea agurtzera. Goizean goiz 140 lagun inguruk igoerari ekin zioten, oraingoan *letania* barik, eta egun ederra pasa zuten bertan, lasai lasai. Arratsaldean, ondo bazkaldu eta gero, sokatira eta *otxoteen* lehiaketak ere izan ziren, musikari ere bere tartetxoa eginez. Amaitzeko, ohiturari jarraituz, jeitsiera *ofiziala* egin zuten txaranga, trikitalari, dultzainero eta guzti.

# EXUKUN

## BEREZITASUNAK

Fraiskozuri 6, Tfnoa: 76 51 62  
BERGARA




## POL - POL TABERNA

Tfnoa: 76 48 51


## DEPORTIVO TABERNA

Tfnoa: 76 01 51





Justa, Bergarako epaitegian zaintzen




Loiolako San Ignazio, Santutegiaren aurrean

**B**ergarako margolariek lortu duten ospea denori ezaguna egiten zaigu. Pintoreak bezain ezagunak ez badira ere, gure herrian izan ditugu hainbat eskultore, eta onak gainera. Horien arteko bat da, orrialde honetan aurkezten dizueguna: Martzial Agirre, joan den mendean hainbat pertsonaia euskaldunen irudiak landu zituen artista bergarra.

## Martzial Agirre: Ezezagun ospetsua

1841.eko azaroaren 22an jaio eta txikitatik, bere aita Joakin Agirreri jarraituz artearen munduan sartu zen. 1864an, Gipuzkoako Diputazioak emandako bekarekin Erromara abiatu eta Fortuny eta Rosales eskultore ospetsuekin harremanetan jarri zen. Han, Loiolako San Inazio, Txurruka mutrikuarra, Juan



Gipuzkoako Diputazioko frontisa ere berak egindakoak dira. Madrideko Cibeleseko lehoiak Martzial Agirrek landu zituela esaten dutenak ere badira.

Italian Lavinia Wittmer-ekin ezkondu eta 1868an Donostiara itzuli zen.

Hemen bere lanen zati bat erakusten dizuegu. Orain badakizue, Madridera, Donostiara, Loiolara, Mutrikura edo Getariara bazoazte, bergarar eskultore haundi honen arrastoak aurkituko dituzue...



Gipuzkoako Diputazioko Jauregiaren frontisa




Juan Sebastian Elkano, Getarian (1.894)

**OILAGORRA**

**TABERNA**

Barrenkale 21 BERGARA



**ZABALETA ERROTULOAK**

Mota guztietako errotuloak.  
Fatxadak, eskaparatek...

Amilaga (Gasolinera ondoan) Tfnoa: 76 57 34



## Victoriano Gallastegi:

### "Bergarar guztion alkatea izan nahi dut"

*Victoriano Gallastegi, 50 urteko angiozartarra, da joan den ostiraletik Bergarako alkate berria. Blanca Ruiz de Eguinorekin ezkondua, hiru seme-alaba ditu: Sonia, Igor eta Maite. Bere taldeko eta PSOE eta EEko bederatzi zinegotzien botuek alkatetzara eraman dute. Ilusio haundiz estreinatu du kargu berria eta udaletxeko despatxoan bost egun bakarrik egin baditu ere, gogor ekin dio lanari. Azken legegaldian oposizioan egon ondoren, maiatzaren 26an egindako bozketetan herritarren konfidantza jaso zuen. Victorianok bergararrak eskertu eta bide batez udalera gonbidatu ditu, «bergarar guztion udala izatea nahi dugu» esan zuen alkate izendatu zuten egunean.*

*Guk Berrigarako orrialdeetara ekarri dugu, udalbatza berriaren egitasmoak ezagutzeko asmoz*

□ Lau urte oposizioan egon ondoren, EAJk berriro ere alkatetza lortu du, nola baloratzen duzu hori?


Guk 1983tik 1987ra arte Udala gobernatu genuen eta jestiño ona egin genuela uste dut. Baina hauteskunde berriak egin zirenean, herriak beste indar bati eman zion konfidantza. Lau urte pasa eta gero, herriaren eritzia aldatu egin dela uste dut eta orain guri eman digu herria aurrera eramateko ardura.

□ EAJ-PSOE-EE. Jeltzaleen eta sozialisten arteko akordioa Lurralde Autonomo guztira zabaldu da, baina hirugarren gobernu-kidea, EE izan da eta EA,

esaterako, kanpoan geratu da. Nola heldu zarete hiruko honetara?

Bozketen emaitzak ezagutu bezain laster, alderdi ezberdinekin harremanetan jarri ginen. Lehenengo EAri deitu genion, bi zinegotzi lortu zituelako. Gaur da eguna oraindik erantzunik jaso ez duguna. Gero EE eta PSOErekin kontaktuan jarri ginen eta hauen erantzuna baiezkoa izan zen. Horrela osatu dugu Gobernu Batzordea. Neri EA gurekin egotea gustatuko litzaidake baina ezinezkoa izan da.

□ Gure herriarentzat koalizio egokiena dela uste duzu?



Sekula ezin da esan egiten dena onena denik. Gure asmoa Gobernu Batzordea bloke demokratikoko alderdiekin osatzea zen, baina EAK ez zigun erantzunik eman. Eurok baloratu beharko dute zergatik ez diren etorri.

□ Hiru alderdi eta bederatzi zinegotzi, nola banatuko dituzue karguak?

Hortan gaude orain, baina ez noa honi buruz ezer esatera, nere obligazioa lehenengo zinegotziei komunikatzea dela uste dudalako.

**K**abia

*Altzariak*

Gipuzkoa Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE



**K O N D E**  
PANADEROKUA  
Burdiñate 1  
BERGARA



Batzorde ezberdinetako lehendakariak izendatu bezain pronto ezagutzera emango ditugu.

**□ Batzorde berririk sortuko duzue?**

Aldaketa batzuk egingo ditugu. Orain arte Kultura eta Kirolak batera joan badira, hemendik aurrera bakoitza bere aldetik banatuko dugu, baina horri buruz ere gauza haundirik ezin dezaket esan. Sekreto haundirik ez dagoen arren, Plenoan aprobatau arte itxoin behar.

**□ Zertan aldatuko da udalaren politika alkate berriarekin?**

Gure asmoa administrazio garbi bat eramatea da, eta herriaren beharrei erantzutea. Bi hitzetan esanda, herriaren alde lan egitea, besterik ez.

**□ Astebete daramazu lanean. Zein izan da kargu berrian egin duzun lehenengo gauza?**

Astlehenean egin nuen lehenengo gauza, herriko hiru familiaren eskaerei erantzutea izan zen. Gero, Udaleko langileekin eta sail ezberdinetako arduradunekin harremanetan jarri naiz euron eritziak jakin asmoz.

**□ Bergarak orain bertan duen problemarik larriena, premiarik nagusiena zein da zure ustez?**

Hauteskunde kanpainan aurkeztu genuen programan arlo ugari agertzen ziren, tartean herriarentzat oso garrantzitsuak direnak: Industrialdearen kokapena, Arau Subsidiarioak delakoa, etxe-

bizitzak, langabezia... Bestalde, udaletxe inguruan azkenaldi honetan geldirik egon diren obrei lehen bait lehen ekin nahi diegu, San Martin Plaza bera, ez dago era egokienean. Bergarak Plaza dotoreago bat merezi duela uste dut. Espaloian parke bat eraikitzeke egitasmoari aurre egin nahi diogu, Zubitta aldean erreka bideratzeko proiektua ere hor dago. Lan asko daukagu esku artean.

**□ Aurrekontuak noiz aprobaturiko dituzue?**

Gure asmoa hil honen bukaerarako, oporrak baino lehen aprobatazea da. Eskuetan daukagun zirriborroa aztertuko dugu, eta horren arabera aldaketaren bat egin behar bada egingo dugu. Dena den, oraindik ez dugu erabakirik hartu.

**□ Auzo alkateekin zein harreman izango duzue?**

Aurki bilduko gara eurokin, lehenbailehen martxan jartzeko. Orain arteko egitura



Uztailaren 5ean J. L. Elkoro alkatezako aulkia V. Gallastegiri utzi zion.

mantenduko dugu. Garrantzi handia emango diegu auzotako arazoei.

**□ Euskara sailari zer garrantzia emango diozue?**

Badaukagu monitore bat euskara arloan lan egiteko gogo askorekin dagoena eta guk, gure aldetik, ahal dugun neurrian, bultzakada gogorra

emango diogu.

**□ Kultura mailan, berriz, zein izango da udalbatza berriaren politika?**

Bergaran egiten diren iharduerentzako Kultur Etxea txiki geratu da. Gai honetan dagoeneko lanean hasi gara eta argi dago Kultur Etxeko zerbitzu batzuek lekuz aldatu beharko direla. Gero Kultura sailean zatiketa txiki bat egin nahi dugu: alde batetik kultura eta bestetik kirolak bakoitza bere aldetik banatuko ditugu, bi sail ezberdin sortuko ditugu. Batzorde berean sartzeko gehiegi dela pentsatzen dugu.

**□ Hirigintza arloan, Arau Subsidiarioak delakoa hor daude...**

Lehenbailehen aprobatau beharrekoa da, orain arte geldirik egon den gaia delako. Arau Subsidiarioak herriaren hirigintza egitura marka-

**Behetik hasita**

**□ Azken aldian Bergarako alkatezta ikusi denez tranpolin bihurtu da: hor ditugu Elkoro eta Bolinagaren kasuak...**

Nik orain bertan hartu dudak konpromisoa, datozen lau urtetan Bergarako alkatezta herriaren alde lan egitea da. Nire asmoa lau urte barru hemen jarraitzea da eta etortzen dena etorriko da, *vervenir* esaten dena.

**□ Bergarako alkatea izateaz gain, Batzar Orokorretan EAJren bozeramailea zara. Nola beteko dituzu lan biak?**

Aurki udaletxean liberatu gisa lan egiten hasiko naiz; beraz, denbora gehiago izango dut nere betebeharrei aurre egiteko. Batzar Orokorretara, bestalde, behin Batzordeak eratu eta gero, hamabostean behin bakarrik joango naiz.


**BERROYA, E. A.**

INPRENTA


OFFSET - TIPOGRAFIA  
ENKUADERNAZIOA

Komenio 2  
Tfnoa: 76 00 01

BERGARA







dauzkagu herrian. Horrekin ez dut esan nahi ezer berririk egingo ez denik, kirolzaleen premiei erantzuna emango diegu.

**□ Gaztetxearekin zer egiteko asmoa daukazue?**

Gaztetxeak okupatzen duen etxeak jabea dauka: Parrokia, eta aspaldi dago lokal horren eske, katekesiak emateko beharrezkoak zaizkielako. Udala arazo horri irtenbide bat aurkitzen saiatuko da, ordezkari ezberdinekin harremanetan jarritz. Gazteek etxe haretatik irten behar baldin badute, nagusiak horrela eskatzen duelako, alde egin beharko dute. Udala, bere aldetik, gazteentzako toki aproposa bilatzen saiatuko da eta araudi bat ezarri beharko da arduragabekeria nagusitu ez dadin.

**□ Zertan aldatu da zure bizitza alkate zarenetik?**

Alkate moduan esperientzia handia ez daukat, baina zinegotzi lanetan zortzi urte egin ditut. Familiak asko sufritzen du, ordu asko pasatzen bait ditut etxetik kanpo, baina ardura bat hartzen duzunean aldekoak eta kontra-koak hartu behar dituzu kontutan.

**□ Nola gustatuko litzaizuke historiara pasatzea?**

Herriarentzat lan asko egin zuen alkatea bezala gogoratzen banaute pozik sentituko nintzateke.

**□ Azkenengo hitza**

Herriak parte har dezala nahiko nuke. Denok batera.

tzen du.

**□ Arrasate bailarako industrigune bihurtu da. Bergara administrazio kontuen eta zerbitzuen hiriburu izan daiteke?**

Arrasaten industria inguruko beste edozein herritan baino gehiago garatu da. Baina horrek ez du esan nahi guk bergarar moduan industria bultzatuko ez dugunik, industrialdearen kokapena lehenbailehen erabaki behar da. Bergara ezin dezakegu lo egiteko herri bihurtu, edo zerbitzu-gune soilik.

**□ Uste duzu Bergaran egiten den kirolarentzat nahikoa instalazio dagoela?**


Alde horretatik ez gaude hain gaizki, kirola egiteko tokiak Bergaran badaudelako: kiroldegia, frontoiak, igarilekuak..., beti egon daiteke zerbait faltan baina kirol azpiegiturak dexente ondo



Victoriano gaztetan futbolari trebea izan genuen.

## Izkutuko kontuak

- **Reala edo Athletic-a:**  
Athletic-a.
- **Bergarako txorrik polttena:**  
San Martín Plaza.
- **Euskal herriko txorrik polttena:**  
Donostia.
- **Udan oporrak pasatzera nora:**  
Zarautzera beti.
- **Bestela non:**  
Galizian.
- **Liburu bat:**  
Ez dut asko irakurtzen, baina batez ere historiakoak.
- **Euskaraz irakurtzen duzu:**  
Ez nahi beste. Orain hasi naiz.
- **Pertsonala historiko bat:**  
Napoleon.
- **Pertsonala euskalduna:**  
Leizaola.
- **Gaur egungo politikoa:**  
Ardanza.
- **Pelikula bat:**  
El tercer hombre.
- **Musika:**  
Klasikoa, Mozart batez ere.
- **Bazkari gustokoena:**  
Arraina, errodaballoa.
- **Pertsona batengan gehien baloratzen duzuna:**  
Zintzotasuna.
- **Gutxien gustatzen zalezuna pertsona batengan:**  
Konfidantza gabekoa eta gezurtia izatea.
- **Emakumeak rubiak edo morenak:**  
Biak.
- **Emakume batengan gehien gustatzen zalezuna:**  
Begiak eta aurpegia.
- **Emakumeak eguzkitan bikiniarekin edo golkorik barik:**  
Berdin dit.
- **Top-leska begi onez ikusten duzu:**  
Hondartzan edo igerilekuetan ondo, baina kalean ez.
- **Arraina edo okela:**  
Arraina.



BERGARA 76 32 20

ELGOIBAR 74 02 36

ANTZUOLA 78 70 30

# THE KENSINGTON SCHOOLS OF ENGLISH

Izen emateko epea zabalik. Baldintza ezin hobekak 1991-92 ikasturterako.



Gipuzkoako Hizkuntz Ikastegien Elkarteko kideak. CAMBRIDGE unibertsitateko P.E.T. azterketen antolatzaileak.



**ANTIA** HARATEGIA  
URDAITEGIA

TXAHAL, IDI, TXERRI  
BILDOTS, UNTXI  
BASERRIKO OILASKOAK

MATXIATEGI Tfnoa: 76 15 09 BERGARA

**Mujika  
Jantzidenda**

BARRENKALE, 1 BERGARA  
Tfnoa: 76 29 91



**LIZAR**

**HALTZARIAK**

Dr. Fleming 5. Tfnoa: 76 16 53  
BERGARA



**ETXE-  
-AUNDI**

Negozio bazkariak  
E z k o n t z a k  
B a n k e t e a k


Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56  
OÑATI

**Begi onez ikusten duzu igarilekuan  
goikorik barik egotea?**



**Maite Toledo**  
24 urte

Bai, gustatu egiten zaidalako horrela egotea. Baina ez dakit pizinetan jarriko nintzatekeen.



**Miguel Albusua**  
25 urte

Ez zait gaizki iruditzen, nahi duena horrela egon dadila.



**M. Angeles Gallego**  
33 urte

Ez dut ondo ikusten pizinetan haur asko daudelako, baina bariante eta pizina artean egin duten zelaian ez zait gaizki iruditzen.



**Ion Muniategi**  
21 urte

Ez ondo ez gaizki, bakoitzak nahi duena egin dezala.

**Autoberezi FIAT**

ZERBITZU OFIZIALA



**ERAKUSKETA:**

Ibargarai 39,  
BERGARA

**TAILERRAK:**

Antigua Auzoa  
ANTZUOLA



**"Europa berria"**

Mugarik gabeko Europa, monetaren batasuna, nazioen Europa, ... etab. bezalako esaldiak egunero agertzen zaizkigu komunikabideetan. Gure politikarion artean, Europa "hitz majikoa" modan dagoela dirudi. Horrela, Ardanza jaunaren diskurtso politiko bat entzutea besterik ez dugu, eta apostu moduan Europa hitza hamar aldiz baino gehiago errepikatzen duela konprobatu.

Euskal Herriko arazo politikoak konpontzeko, Europa da politiko askorentzat soluziobidea, hau da, Europaren marku edo eremuan kokatzen dute Euskadi, nazioen Europa delakoa behin eta berriro errepikatuz. Bitartean, hamabi izarreko bandera famatua (hamabi izar baino gehiago sarterik ez dagoelako edo...), nonahi azaltzen da: komunikabideetan, udaletxeetan, janari produktuetan, etab.

Bestalde, egunero entzun dezakegu 93. urtera begira dauden proiektu izugarriak, "Europa bateratu" hori posible egingo duen faktoreak goraiatuz: kompetitibitatea, monetaren batasuna, merkatu bakar bat... Hau da, Europaren garapen ekonomikoaren alde egin beharrekoak errepikatzen dizkigute, Europa munduko potentzia ekonomiko garrantzitsuenetarikoa bihurtzeko esperantza azalduz.

Hau gutxi bada, estatu espainolari "V centenario" delakoa ospatzea okurrizten zaio, garai hartan europarrek egin zuten genozidio kulturala txalokatuz; hala ere, bi kultura ezberdinen topaketa ospatzen dutela diote..., eta nola ez, europarrek munduko historian izan duten garrantzia goretsiz.

Badirudi, Europar izatearen harrokeria bat dagoela guzti honetan; euskaldunaz gain EUROPARRAK gara, hau da, herrialde modernu eta garatu baten biztanleak, hau da saldu nahi diguten Europa berria, munduko herrialde azpigaratu-ekin aurkezten duen elkartasuna itxurazkoa bakarrik izanik.

**Jon Ander Bengoa****Herriaren alde**

Hauteskundeak izan zirenetik hilabete bat pasa denean, maiatzaren 26 hura eta hurrengo egunetan gertatutakoa jendearen gogoan dago oraindik ere. Alderdi berriko negoziaketak, eta negoziatio hoietatik ateratako akordio eta paktuak, egunkarietako lehen orriko tarteak betetzen dituzte oraindik, eta egoera ikusita, gauza bat argi dago: datozen lau urteetan ez dela batere erreza izango euskal erankundeak gobernatzea. Jendearen haserreak, edo pozak, ahazten joango dira puxkanaka, baina gobernatzeko dauden benetazko arazoak ez dira hain errez desagertuko.


Bergarari dagokienez, eta hau ez da gauza berria, aldaketa nabarmena izan da hauteskunde egunaren ondorioz, HB-k galdu egin bait du alkatetza. Egun gutxi ezkeroztik, EAJ-ren esku dago postu hori. Osatu den udaletxe honetan ere, gauzak ez dira errez-errez joango, orain arte ere horrela joan ez direlako. Baina, kaletik ikusita, badago korporazio berriari zer eskatu: lan egin dezan HERRIAREN alde, alderdi desberdinen ejekutibean arteko diferentziak eta tira-birak ahal duten neurrian baztertzea, Bergara primatuz, eta Bergararen etorkizunaz pentsatzea, dauden beharrak betetzen eta dauden arazoak gaintitzen.

Badagoela non lan egin, hori argi dago. Arlo askok behar dute Udalaren laguntza, eta nola ez biztanleen kolaborazioa ere. Une hauetan, adibidez, "Kilometroak -91" antolatzen ari da. Urriaren 6an Bergaran ospatuko den jai garrantzitsu horretarako, denon laguntza eta parte-hartzea inportantea da, Udaletxearena eta biztanleena, noski.

Herriaren alde lan egiteko uneak ez dira faltako, eta 4 urte barru gure botoa edukiko dugu berriro ere herriaren alde egindakoa saritzeko edo zigortzeko.

**Ane Miren Lizarralde****LAN ESKAINTZA****GAZTE TALDE BAT BEHAR DUGU:**

- ✓ 4 pertsona gutxienez..
- ✓ Mendian lan egiten ohituak.
- ✓ Batek Land-Rover bat eduki beharko luke.

**TFNOA: 45 41 77****Gaspar****JATETXEA, TXOKOLATEGIA  
SELF SERVICE-a****Barrenkale 31, Tfnoa: 76 20 02****I  
Z  
O  
K  
I  
A  
K****i  
Z  
A  
R  
H  
O  
T  
Z****I  
Z  
O  
K  
I  
A  
K**

Barrenkale 10, Tfnoa: 76 18 22





**25. Ezagutzen dut familia bat seme-alabak hezitzeko ikaragarriko arazoak dituen. Ez al dago horiel laguntza eskainiko dienik?**

Badaude era horretako arazoetarako laguntzak. Laguntza horiek Udaleko Hezitzaile Espezializatuak bideratzen ditu. Berarengana joan eta berak aipatu duzun familia horren problemeei buruzko txostena egingo luke eta txosten horrekin, Gipuzkoako Diputazioak orain dela gutxi martxan jarri duen *Gizalan* programaren bitartez, familia horrek izan dezakeen

arazoari ahalik eta irtenbiderik onena ematen saiatuko ginategi, laguntza, batez ere, orientazioa ematea izango litzateke, baina kasu konkrituak aztertuta beste erabatekoak ere izan daitezke.

(Informazioa: Udaleko Hezitzaile Espezializatuak)

**26. Zer egin dalteke arrokek sitsik ez izateko?**

Normalean fibra sintetiko gehienak sitsaren kontra babestuta egoten dira baina fibra naturalekin nahastuta daudenean, komeni izaten da

babesgarriren bat jartzea. Alde batetik, ona da arropak kajoi hermetikoetan edo plastikoz batuta jartzea. Horretaz aparte, sitsaren kontrako produktoren bat jartzea ere komeni da. Bai drogerietan eta bai farmazietan izaten dira.

Ezpilikua eta txixare berrak ere oso onak dira sitsen kontra. Jar itzazu gasa baten batuta arropa tartean. Antzina laranja azalak ere erabiltzen ziren.

**27. Urtero kontribuzioa ordaintzen badugu zergatik ordaindu behar dugu plusbalia?**

Bi gauza zeharo desberdinak dira.

Kontribuzioa (Paperetan "Ondasun Higiezinaren gainerako Zerga" deitzen zaiona) baserri, etxe, lur-sail edo antzeko ondasun higiezinaren (mugiezinaren) jabe izateagatik urtero ordaintzen den zerga da. Hemen, bada, ondasun baten jabe izateagatik ordaindu behar da zerga.

Plusbalia, berriz, hiri-ondasun bat (etxea, lokala,

etab.) saltzean, etxe edo lokal horiek dauden hiri lurrak izan duen balio-gehitzegatik ordaindu behar da. Kasu honetan hiri-lurraren balio-gehikuntza da zerga hau ordaintzearen arazoia. Landa lurrek ez dute zerga hau ordaintzen.

Kontribuzioa ondasunaren jabeak ordaindu behar du. Plusbalia, berriz, ondasunaren saltzaileak, bera delako balio-gehikuntzari etekina ateratzen diona.

(Informazioa: Udaleko kontuhartzaitza zerbitzua)

**28. Zenbat urte ditu Bergarako Frontoiak. Hasieratik estalia al zen?**

Ez dira urte asko frontoia egin zeneko lehen mendeurrena igaro dela. 1885ean egin zen gure frontoi famatua. Hasieran ez zen estalia. Horretarako, hogeitamar urte itxoin behar izan zuen: 1.915ean estali zen.

**Ziripot**  
Bidekurutzeta, 11 Tfnoa: 76 11 41

**BRIKOLAIA  
AUTOMOZIOA**  
Turismoak, kamiolak, etab.  
Bolu, Tfnoa: 764404 BERGARA

**IRAKASLE ESKOLA**  
E s k o r i a t z a  
G i p u z k o a

Irakasle Eskola honek zera jakin arazten du:  
**1991-92 ikasturterako aurreinskripzio-epaia zabalik dagoela, uztailearen 18rarte.**

**Espezialitateak:**

- ZIENTZAK
- HAUR-ESKOLA
- EUSKAL FILOLOGIA
- INGELES FILOLOGIA

Informazioa: Irakasle Eskola. Tfnoa: 943 / 79 04 40.  
Ordutegia: 9.00-13.00




□ **Mendiko bizikletan errege**

Joseba Arietaleanizbeaskoetxea dugu Euskadiko Mendiko Bizikletan txapelkun berria. Laurogei lagun inguru aurkeztu ziren Zumarragan jokaturako txapelketara; linean eta erlojuaren kontra korritutako proben ondoren Joseba izan genuen garaile; lineako proban, 22 Km.tan, Josebak irabazi egin zuen eta erlojuaren kontrako 4 Km.ko proban, berriz, bigarren izan genuen Paco Salaren atzetik. Aitor Garitano bergararrak ere txapelketa ona egin zuen, lehen 30en artean sailkatuz. Bestalde, Lokatza taldeak irailaren 28an jokaturako litzatekeen Gipuzkoako Txapelketaren antolakuntza eskatu du.



Zertan dihardute ba?

**SANTA MARINA**




Santa Marinako Parrokikoek autobus bat bete zuten joan zen larunbatean ETBk igande goizean eman zuen meza grabatzeko. Grabazioa Lazkaoko Benediktinarren Elizan egin zen eta Xabier Zubizarreta apaizak eman zuen meza **LOKATZA**



Lokatza Txirrindulari Elkarteko Caldereria San Pedro bigarren urteko kadete taldeak garaipena lortu zuen Gipuzkoako erlojuaren kontrako Txapelketan. Igandean Zumaian 20 km.tan jokaturako proban taldeko sei txirrindulariek denborarik hoberena lortu zuten.


□ **"Hor Konpon Tour"**

Ostiral honetatik aurrera Mireia Gabilondo bergarar aktorea astero izango dugu ETBk udarako prestatu duen *Hor Konpon Tour* programa aurkezten. Mireiak Patxi Gonzalezekin batera egingo du herriz herri grabatuko den entretenimendu programa honen aurkezpena. Joan zen ostegunean Arrasaten egin zen gaur gauean emitituko den programaren grabazioa. Badakizue...ETB-lean!




□ **Irteerak**

Egunotako eguraldi ona aprobetxatuz, Mizpirualde Egoitzakoek zenbait irteera egin dute jadanik. Orain bi aste Samartzialetan izan genituen goiz goizetik eta joan zen ostegunean berriz Arantzazura joan zitzaizkigun, bertan errosarioa errezau eta afari-merienda egitera. Horrezgain, asteartero eta ostegunero erresidentziako batzuk Jubilatuen Etxera joaten dira han arratsaldea pasatzera.



**FS**  
oto istema



*Pepelu*  
**Ileapaindegia**  
Zurradero 2, Behea  
Tfnoa: 76 43 07



## Hau dok barreguria

Errebiro be etzan kazari makala. Etzeuan lekutik pe mordua ekartzen ei zeban. Lagunartian, bestiak txistik eitteke zerela, ur bitsetan kontatzen zebilen:

- Gaztandolako pagadi gaiñian joan dan uso pasian, zer zuan ha! Goiz baten denpora gutxixan berrogetahiru uso bota najittuan, denpora gutxixan, gaiñiera. Ordu erdi inguruan izugarrizko uso bandadak pasau eta pasau gelditzeke. Ha zuan amama! Arnasaik hartzeke jardun najuan: danba! batera, danba! bestera, danba! albora, danba! harutzagora...

- Ze txotxo? Danba, danba eta danba... zela baiña? eta eskupetia kargau noiz?- preguntau zotsan lagun batek.

- Ze uste dok pa hik, hainbeste uso zetorrela kargatzeko astixa neukala, ala?

\*\*\*\*\*

Behin joan zan guraso bat bere semiai elgorrixa

osatzen ibili zan medikuagana kontua pagatzera. Karu xamarra pentsau jakon eta esan zotsan:

- Zerbait merkatuko dostazu baiña?

- Merkatu? zer dala ta?

- Ba nere seme horri esker darabizuzelako aurten holako irabazixak.

- Ze ba?

- Bera izan zalako eskolako guztiei elgorrixa pagau zotsena.

\*\*\*\*



Medikuanian:

- Alde guztietako minez nago. Min buruan, min iztarretan, min gibelian... Zortzi egun daroiat lorik eitteke, zortzi egun jan barik...

- Eta ostientzian ze moduz zagoz?

J. M. Elexpuru

## Baseriko emakumeen bizimodua (1)

Gizonak pe lan asko eitte eben baiña emakumiak zatixa geixao; etxien da kanpuan. Kanpuen emakumiak danak saillian eitte eben lana. Da etxera etorritakuen e, gizona sikira bazkalostian puskatzen eon da, harek ontzixak jaso ero, zerak eitten, da atzea lanea. Hamar umetik beragokoik ezeuan. Dana. Naiz da jazteko ezebez eta jateko ezebez euki, umia ugeri. Eta beti abadiak e, "ekarri in bia dala umiak asko". Frailia neuri be esanda dao: hortaiko lana ein bia nebanian, bia dan moduan eitteko, etorri zein famelixia. Hori prailiak neuri esana.



Emakumia, umiak ugeri eukitzeke eta lan ugeri eitteko. Ta ezebez jateko gauza dezenteik, ez euan diruik eta. Emakumia gorriak pasautakua. Ez mediku bat, etxian familixia izen, gorriak ikusittako emakumiak, danok. Egon zien bestelakuak pe, beren burua maittiao zebanak, baiña jenerala holaxe. Gaiñiera kafe puxkat hartzeko be ez eben eukitzen da. Ezebez, diruik ez. Ezek ez eban balio ta, dozana arrautzia zortzi txakurraundi, zortzi, zazpi. Patatiakin, kiluakin txakurraundixa. Ostiengo gauza guztiak halaxe eren. Ezekin be diruik hartu ez, da nun eukiko ziñuan ba jazteko ta ezetarako. Alperrik egongo zien merke, zuk ezpaaukazu. Gure ama zarrak esate ebana: lausikua zan leenao, nik eneban ezautu, gure amak eta ezutu zeben, lausikua. Harek esateban: zetako da ba idixa lausikuan egotia lausikua ezpaaukazu. Harek hoixe esate eban, da errazoia eukan. Ezekin diruik hartu ez. Miserixa baten bizi zien orduko emakumeik.

Mertzedes Agirre, 1899an Laudatzen  
"Begarako Euskera" liburitik aterata

**URRATS**  
Kafetegia

Ibargarai Tfnoa: 76 52 92  
BERGARA



**KORTA-ZAR**  
Txokolategia

Pintxo eta ogibartekoen  
espezialitatea

Barrenkale 16, Tfnoa: 76 20 62

**ARRANO**  
TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

**GIARTZU** (M. Isabel)  
DERMOESTETIKA OSOKO ZENTROA

Laser izpien bidezko errekupeazioa  
Errekupegiu elektronikoa  
Korrente Kapazitiboak

Estetika Tratamenduak  
Larruazal garbiketak  
Kosmetika Espezializatua

Boni Laskurain 3, Beheak, Tfnoa: 76 35 71



**G**azte bergarar bat debutatzeaz dago boxeo munduan. Fernando Rubio, 1. 53m. eta 55 kg., ringera igotzeko prest dago jadanik. Orain, konbate bat antolatzea baino ez da falta, 7 hilabeteko lana asalto gutxitan frogan jartzea. Boluko gimnasioan hasi zen orain 7 hilabete entrenatzen, "zedozer egiteagatik, geldirik ez egoteko eta boxeo betidanik gustatu zaidalako. Aitari komentatu nion eta harek baietz". Lanbide Heziketako lehen kurtsoa egin berri duen 17 urteko gazte honek serio egin zion aurre erronka honi eta bere debutaren aurreko egunetan ordubete entrenatzen du egunero. Ez edozeinekin gainera; Fernandok Santi Galan boxeolari arrasaterarekin entrenatzeko aukera izaten du astean behin, Fernandoren entrenatzailea Santiren anaia da, Amalio Galan boxeolari izana hain zuzen. Amalioren hitzetan, "benetan gustatzen zaiona burrukatzea da, guanteak jantzi eta beste baten kontra jo, pushing balla ere bai. Aldiz, gimnasia ez du gustoko, izugarri kostatzen zaio berotze ariketak egitea". Era berean, Amaliok gizon indartsutzat jotzen du bere ikaslea, "indar asko du baina teknikak ere, kontrakoa dirudien arren, bere biziko garrantzia du boxeoan". Dagoeneko amateurretan federatua dago Fernando Arrasateko San Andres taldearekin baina debutatzeko Amalioren ueste-

## Fernando Rubio Madurako Txekorra



tan laupabost kilo flakatu beharko luke; horrela, orain dagoen *peso gallo* kategoriatik *peso moskara* pasatuko litzateke, kategoria aproposagoa debutatzeko. Honek, jakina, esfortzu bat exijitzen dio Fernandori, "behin


*mundu honetan sartuta, asko zaindu beharra duzu zeure burua. Edaria eta tabakoa alde batera utzi eta janaria ere kontrolatzea komeni da. Kalimotxoak edota garagar-doak edan beharrean, zumo naturalak, eta janarietan a-*

### Boxeoa K.O.?

*Ezagutu dituzte boxeoa garai hobekoak, dudarik ez. Egia esan, beti izan du nahiko imajinatxarra; konbateak gehienetan aurrez moldatuak zirela, errealitateak erakutsi digun alde arriskutsua... etab., baina argi dago oraindik ere gantxoak duela betiko zaletuen artean. Bergararen kasuan ere ezagutzen dira egun oparagoak boxeoari dagokionean; urrun geratzen dira Beheko Estaziñoko, Samartzial edota Frontoiko beladak. Urtainen garaian ere bazen Bergaran bere omenez sortutako Peña bat, Sapaterikuan, eta han joaten ziren bere konbate guztietara. Eta boxeolariak ere ez dira falta izan gure herrian. Orain, Madurako Txekorra debutatzeaz dagoenean, nork daki garai haiek bueltatuko diren.*

*rraina eta berdurak gehienbat, guzti horrek on egiten dio gorputzari". Gorputza zaintzeaz gain, eta hilabete hauetan asko ikasi duen arren, "oraindik ere asko falta zaio ikasteko ringean bere burua garantiaz osoz defendatzeko" dio Amaliok. Fernando ere jakinean dago honako hau ez dela txantxetako kirola, "etxean esaten didate kontuz ibiltzeko, nik ere badakit arriskua badagoela baina ez dut ulertzen boxeoa jasaten duen diskriminazioa, beste kirol bat moduan ikusten dut, arriskua denetan egon daiteke". Oraingoz profesionale-tara heltzea pentsatu ez duen arren, aurrerantzean bere gustoko lanik aurkituko ez balu agian profesionala izateko ahalegin guztiak egingo litzuzkeela dio. Momentuz, Euskadi eta Espainiako Txapelketan parte hartzea gustatuko litzaioke. Gauzak horrela, eta boxeoaren beherakada tartean, oso konbate gutxi antolatzen dira inguruan, boxeoaren etorkizuna ez da batere argia gaur egun baina badira kirol hau praktikatzen duten zenbait gazte Bergaran; Fernandorekin batera beste hiru gaztek entrenatzen dute, guztiak boxeoan konfiantza osoa dute, baina kirol honek duen laguntza falta salatu eta, bide batez, konbateak, aukera bat eskatzen dute. Fernando Rubio Madurako Txekorra ere ringaren bazter batetan kanpaiaren hotsaren zai dugu.*

GIMNASIOA



Harane Erreka 9, Tfnoa: 76 51 20

#### ✓ IHARDUERAK

- Mantenimendu gimnasia
- Aerobic-a • Body Building-a
- Yoga • Boxeoa
- Dantza-Jazza- Haurrentzako balleta
- Karatea-Kyokushinkai-a
- Haurrentzako karatea
- Squasha eta Ping-Pong-a
- Muskulazioa eta kulturismoa

#### ✓ ZERBITZUAK

- Masaia • Steticien-a • Solariumna
- Sauna-aurrea eta sauna
- Hidromasaiarako bainuontzia
- Taberna
- Kirol jantziak eta osagarriak
- Kirol sendagilea
- Kirolarientzako elikadura aholkularitza





**N**orbaitek halakorik pentsa badezake ere, ez da hau Santa Luziako ferixan hartutako erretratu, ezta Sevillan egindakoa ere. Hau ere Bergaran ateratakoa da. 1.964. urtean Sagarpe Elkartearen orduan sekretario zegoenak, Juan Mari Azpiatzuk, bultzatuta, jaietako estanpak egin ziren lehen aldiz. Hurrengo bi urteetan Jose Iturbe, Sagarpeko idazkari berria, izan zen antolaketan buru ibili zena eta laugarren urtetik ez zen izan. Hala amaitu ziren, tamalez, Bergarako estanpen ikuskizunak. Bertan 280-300 lagunek hartzen zuten parte eta ia guztientzako arropak alkitatu egin behar izaten ziren.

Aurrean duzuen argazki hau azken urtekoa da, 1.966koa. Bertan agertzen diren ijito-ijitanak hauek dituzue:

**Ezkerretik eskumara:** Lurdes Txurruka eta Beatriz Lazkano (zutik dauden bi neskak), ezezaguna eta Aintzane Sasieta (neska mutikoak) Anjelito Aranguren (lurrean jarrita dagoen mutila); Julio San Vicente, Ana Martinez, Begofña Uriarte, Mertxe Laskurain, Kruz Gallastegi (Kuxito) eta Ines Etxeberria.

Astoaren izenik ere ez dakigu, ezta jatorrikerik ere.

*Estepan Plazaola*

*Argazkia: Jose Iturbe*

**ELKAR**

Fotokopiak  
Enkuadernazioa  
Jendearentzako faxa  
Plastifikazioa  
Planoen kopiak.

Harruriaga 1, Behea

Tfnoa: 76 58 16

BERGARA



Tfnoa: 76 38 57

Irala 1



## Oharra:

Orrialde honetan iragarkiak ez dira ordaintzen.



### ETXEBIZITZA

- Pisu bat alokatzen dut Martokuan. 761460
- Pisua salgai Koldo Elizalde 20an. Deitu gaueko 20etatik aurrera 764252
- Pisua salgai Koldo Elizalden. Tfnoa: 765823.
- Pisua alkatzen da Bolun. Tfnoa: 763797.
- Soto eta garajeak salgai Martokuan. Tamainu ezberdinetakoak. 761078.
- Pisua salgai; garaje eta guzti. 763911.
- Baserri bat hartuko genuke alokairuan. Tfnoa: 763431.
- Pisu edo buhardilla hartuko genuke alokairuan. 764735.

### LANA

- Neska euskaldun bat behar da etxeko lanetarako. Mesedez fundamentoduna. 760180 Tfno.a.

### DENETARIK

- Mutiko baten txaketa urdin bat, (10 tailakoa), aurkitu genuen, aurreko zapatuan, hilak 15, Irizar-ko Bodegoiaren inguruan. Deitu 761781 tfno.ra.
- Lau hilabeteko Siberian Husky Txakurra galdu da. Kanela kobre kolorea, betondo zuria eta begi urdinak ditu. Deitu 761479 tfno.ra. Eskertuko da.

- Doberman bat galdu da. Deitu 761479 tfno.ra.
- Funda azuldun betaurreko graduatuak aurkitu dira Ariznoa kalean. Deitu: 761536

### SALDU-EROSI

- Paseo bizikleta arrosa bat salgai, sesto eta guzti. Deitu: 761241 tfno.ra. Idurregatik galdetu.
- 28 urteko pinudia salgai. Terreno eta guzti. 76-1201.
- Yamaha 250 SR oso egoera onean salgai. Deitu: 862071era.
- Amstrad ordenadorea salgai, kolorezko monitorrea, 3 pulgadako disketera,

30 joku eta oso merke. Tfnoa: 908171883 (Kotxekoa)

• Karrerako bizikleta polita eta arina salgai. Ez da garestia. 763269.

• *Reflecta Diamator AF* diapositiba proiektorea salgai. 762230 gaueko 9etatik aurrera.

• Hiru urte dituen Mobylette bat salgai. Prezio ona. 763276.

• 7 pertsonarentzako aldogoizko kanping bat salgai. Prezio interesgarria. 761634 Arantzagatik galdetu.

• Vespa 200a salgai, egoera onean. Prezioa 180.000 pzta. Deitu 761639 tfno.ra.

## Hildakoak

**Miguel Arizmendi Azpiazu**  
68 urte, uztailak 8.

## BERRIGARA

Eskatu eta etxean



76 03 97

## Aldoka Maldoka

Taberna

KRUZ GALLASTEGI  
BERGARA

## AUTOPULLMANS ARABA

### Autobusak

Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 70



## JANTZI ZURE ETXEA PREZIO ONEAN

# Hemen **PORTUGAL**

Nire etxea jazten du, fabrikatik zuzenean.

**Bordatutako toaila  
jokua**

**1.990** pztatik aurrera

**Harapak**

200 x 140

**3.800** pztatik

aurrera

**Harapak**

240 x 170

**4.500** pztatik

aurrera

**Toailak**

**Eskutarakoa 99** pzta.

**Konketarako 299** pzta.

**Dutxarako 650** pzta.

**Albornoza  
amerikar kiribilduna**

**1.900** pztatik aurrera

**Bainu-izarak**

**1.050** pztatik aurrera

**Edredoia**

1,35

**5.913** pztatik

aurrera

**Edredoia**

90

**4.475** pztatik

aurrera

Helbidea:

BEINKE E. L. Mahasterreka 13

BERGARA